



EUSKAL HERRIKO SOINU TRESNAK BERRIRO DENDETAN

Elkar argitaletxeak edizio berri bat atera du Soinuenearekin elkarlanean. Edizio berri honetan liburua, ikus-entzunezkoa eta audioa elkarrekin joango dira.


Orain dela hogeita hamar urte baino gehiago egin zen lana da *Euskal Herriko Soinu Tresnak*. Laurogeiko hamarkadan egin zenean, formatu ezberdinetan argitaratu zen, bakoitzak eskura jartzen zituen baliabideak erabiliaz eta ahalik eta jende gehienaren etxeetara euskal kulturaren harribitxiak zirenak helarazteko ahaleginen. Horrela, Juan Mari Beltranek zuzendu zuen lan hau LP, CD eta VHS formatuetan plazaratu zuen IZ argitaletxeak. Lehenengo bi formatuek audioaz gain, liburuxka mardulak zituzten, grabazioetan entzun zitezkeen musikari eta soinu-tresnei buruzko testuekin.

Lanaren helburua Euskal Herriko berezko musikan erabiltzen ziren soinu-tresnen aurkezpen orokor bat egitea zen. Konkretuki, 1980ko hamarkadara arte erabiltzen zirenak landu ziren. Honen aurrean, lan horretan azaltzen diren soinu-tresna gehienak gaur egun ere gure herrieta-ko kaleetan entzuten jarraitzen dugula esan beharra dago.

Soinu-tresna bakoitzaren ezaugarriak azaltzeaz gain, bakoitzak bere inguru jakinean betetzen zuen funtzioa eta izan zitzakeen aldaerak ere aipatzen ziren.

Horrela, soinu-tresna horien bidez Euskal Herriko eskualde ezberdinetan bidaia aberatsa proposatzen zuen lan hark, txoko bakoitzean bizirik jarraitzen zuen euskal herri musika aurkeztuz.

Orduko hotsak, joerak, estiloak, musika motak eta soinu-tresna taldeak erakutsi nahi ziren. Aldi berean, jasota geratu zen musika haren funtzioa zein zen azaltzen zen. Eta nahi eta nahi ez, musikari haien ingurua islatzen zen; audioaren kasuan hizkeran, erabiltzen zuen euskalkian, naba-



Edizio berriaren azala. SNN

ritzen zen zein lurraldetan zeuden, eta ikus-entzunezkoan baita irudietan ageri ziren paisaietan ere.

1984 eta 1985 artean Juan Mari Beltran eta bere lan taldea herriz herri ibili zen euskal lurraldeetan barrena musikari apartak ezagutzen. Garai hartan bizirik zirauen musika hura zaharra zen, jotzen zuten musikari haiek baino zaharragoa, baina jotzen zuten aldi bakoitzean berritzen zena, freskotasunik galdu ez zuena, iragane-ko ukituaren misterioak erakargarri egiten zuena: aberasgarria.

Proiektu haren zati bat besterik ez zen ikus-entzunezkoa Soinueneak 2010ean berriro argitaratu zuen bi ikus-entzunezkoz osatuta zegoen *Soinu-Tresnak Euskal Herri Musikan* lanean. Kasu horretan, *Euskal Herriko Soinu Tresnak-i* azpigituluak sartu zitzaizkion euskal herritar guz-

tiek hizketan azaltzen ziren musikarien esanak ulertzea errazteko, eta Euskal Herriaren mugetatik kanpora ere lan hau erabilgarria izan zedin. Azpigituluak hizkuntza hauetan jarri ziren: jatorrizko euskara, euskara batua, gaztelera, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa.

Bigarren ikus-entzunezko bat ere gehitu zen proiektu haren nondik norakoak azalduz. Bertan proiektuaren sortzailea eta zuzendaria izan zen Juan Mari Beltranek non grabatu zen, nola, zein baldintzetan, eta gertatu ziren xelebrekeriak gogoratzen ditu.

Orduetik hona, IZ argitaletxeak lan egiteari utzi zion eta gaur egun Elkar da haien funtsen jabea. Euskal kulturako lan interesgarriak ditu funts horrek bere baitan eta Elkarrek pixkanaka berrargitaratzeari ekin dio. Hori dela eta, *Euskal Herriko Soinu Tresnak* lanean bildutako materiala berriro argitaratuko du. Oraingoan, aurretik argitaratu zen material guztia elkartuta argitaratuko du hala ere. Honek zer esan nahi du? Bada, laurogeiko hamarkadan LP-arekin zihon testuarekin liburu bat egin da eta liburu horri bi disko gehitu zaizkio. Diskoetako bat audio hutsekoa da eta bestean berriz 2010ean Soinueneak argitaratutako *Soinu-tresnak Euskal Herri Musikan* lana doa.

Juan Mari Beltranek testuak errebisatu eta eguneratu egin ditu. Horretaz gain beharrezko eta interesgarri ikusten zituen audio grabazioak gehitu ditu emaitza ederra lortuaz. Erreferentziazkoa izateari utzi ez dion lanak berriro jendartera iristeko bidea egin du oraingoan.

Urriak aurrera egin ahala lanaren aurkezpen zabala egingo da eta dendetan zabaltzen hasiko da.

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

UDAZKENEKO KONTZERTUA

2017ko urriaren 7an - 18:30 - Auzokalte elkarte

JOAN FRANCES TISNER

Tralhaires



Abeslaria, musikaria eta sortzaile-kompositorea, ikuskizunen asmatzailea da Joan Francés Tisnèr.

Berekin topo egitea bere baitan duen umorea erakusten duten aurpegi, irribarrea eta ahots berezia atzematea da.

Bere hots unibertsoak okzitaniar abesti herrikoiak eta konposizioak, danburiarekin lagundutako ahozko inprobisazioak, oinekin egindako perkusioa, akordeoi diatonikoa ematen dizkigu, baita elektroakustika indartsua nekazal eta hiritar inguruan ere.

Dantzaldia Joan Francés erakartzen duen giro bat da; dantza, aldiz, inspi-

ratzen duen une bat.

Bere artista ibilbidean ez dio inongo unetan dantzariekin duen harremana zaintzeari utzi; abestia eta dantza, abeslaria eta dantzaria bat egitea lortzen duen harremana.

Gaur egun lana hainbat artistarekin egiten du eta Tralhaires emankizunean Jakes Aymonino, Francés Dumeaux eta Domenja Lekuonarekin osatzen du taldea.

Joan Francés Tisnèr bera da proiektu honetan konposizioan eta hots espazioa sortzen aritzeaz gain kantatzen duena. **Jakes Aymonino** ahotsarekin, soinu-tresnekin eta zuzene-

neko difusioarekin aritzen da. **Francés Dumeaux** da elektronika konposizioak, hotsen tratamenduak eta makinaren ardura duena. Azkenik, **Domenja Lekuonak** testuak irakurtzen ditu eta difusioan ere aritzen da.

TRALHAIRES

Proiektu honen sorkuntzan Joan Francés-ek abiapuntua 1844 eta 1921 artean bizitu zen Félix Arnaudin etnologo gaskoiaren lanean jarri du. Jaiotza eta hil Landetako erdialdean dagoen Labouheyre herrian egin zen Félix Arnaudin, eta bere bizitzako zati handia bere herrialdean dagoeneko abiatuta handian aldatzen ari zen bizimoduak dokumentatzen eman zuen. Makina bat argazki, kontakizun eta kantu bildu zituen. Hala, Landetako herri memoriaren erreferentziatzko lana egin zuen.

Lanaren zuzeneko emanaldian Félix Arnaudin-en argazkiak proiektatzen dira eta haiei hots paisaia, kantak, ipuinak, atsotitzak, eta *Journal et Choses de l'Ancienne Lande* liburuko pasarteak eranstean zaizkie.

ETA GOIZEAN

GASKOINIAKO DANTZA KANTATUAK

Lekua: ARDITURRI
Arditurri Meatze Gunea
20180 Oiartzun

Eguna: 2017-10-07

Ordua: 11:30

Joan Francés Tisnèr musikari okzitaniarrak Gaskoiniako dantzei buruzko tailerra emango du. Dantza hauek KANTATU egiten dira eta, jakina, DANTZATU. Bereziki helduei zuzendutako tailerra da.

ALAN GRIFFIN

Infernura erdibidean



Alan Griffin sortzez irlandarra bada ere urte ugari daramatza Euskal Herrian. Gaur egun Gipuzkoan bizi den musikari hau 1984an iritsi zen Donostiara literatura alorreko ikasketak zirela eta. Orduan izan zuen lehen harremana euskal musikarekin eta geroztik zeharkako flauta, uillean pipes, whistle eta Euskal Herrian ezagutu zuen albokarekin makina bat musika proiektutan parte hartutakoa da. *Alboka* eta *Aintzina* taldeetako kidea izateaz gain, euskal musikari ezagunak lagundu ditu bere soinutresnekin. Horien arteko batzuk dira Txomin Artola eta Amaia Zubiria, Xabi San Sebastian, Gorka Knörr, Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti.

HALFWAY TO HELL

Hogeita hamar urtetik hona Euskal Herrian bizi den Alan Griffin musikari irlandarrak aurkeztzen duen proiektu honek 333 doinu biltzen ditu, hortik datorkio *Halfway to hell* izena (Infernura erdibidean). Alanek sinatutako, sortutako edota herri ondaretik hartu eta moldatutako doinuak dira. Bilduma zabal hau, iruzkinez eta oharrez hornituta dago, bere zabalean biltzen dituelarik, albokarien doinutegirako dantza berrietatik hasi, eta kantutegietan musikaririk gabe heldu diren hitzentzat berariaz onduriko piezetaraino.

Halako etorri bikaineko gure irlandarrak ikuspegi kosmopolita eta ikasi batez aberastu du alboka, euskal ikonoetarikoa den tresna berezi hori, eta liburuan topa daitezkeen doinuetako aukeraketa bat izango da emanaldi honetan aurkeztuko dena.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Auzokalte elkartearen bertan izango da, kontzertuaren izango den elkarte berean. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Kontzertua eta afaria: 20 euro

kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO ELKARTEA


TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA
esku-soinuak
9 zero sette
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

euskara
castellano
galego
english
français

INTERNETEN ITXURA BERRIA

Soinuenearen gaur egungo web orria 2008an jarri zen sarean sarean eta geroztik munduko bazter guztietako jendeak izan du gure berri izateko aukera. Ez da munduko hizkuntza guztietan jartzerik izan, baina gure hizkuntza dugun euskaraz gain, gazteleraz, frantsesa eta ingelesa erabili dira Soinuenea zer den eta non dagoen azaltzeko. Antolatu ditugun ekitaldiak euskaraz eta gazteleraz azaltzeko aukera izan dugu.

Hasieran www.herrimusika.org domeinuarekin bakarrik zabaltzen genuen gure irudia eta guk antolatutako ekintzen berri. Gaur egun beste domeinu bat ere erabiltzen dugu, fundazioaren izena eta nongoak garen, neurri batean behintzat, azaltzen duena: www.soinuenea.eus.

Bederatzi urte pasa dira diseinu hura indarrean daukagunetik eta badakigu teknologia berrien garaietan horiek urte asko direla. Aukera teknologiko berriak azaltzen joan dira: sare sozialek indar handia hartu dute, telefonoetan internet ohikoa da gaur egun,... Baina horretaz gain modak bere bidea jarraitu duela ikusten dugu. Publikoak gaur egun beste itxura bateko web orriak eskatzen ditu.

Hori dela eta azken urtean orri berria prestatzen aritu gara Lotura-ko langileekin batera eta iritsi da sarera igotzeko garaia. Oraingoan ekitaldiak frantsesez eta ingelesez ere azaltzeko aukera sartu dugu. Gogor aritu gara ahalik eta web erabilgarriena sortzeko asmoz eta erabiltzaileek urrian zehar sarean jartzean nabaritutako dutelakoan gaude.

AUDIOGIDA GALIZIERAZ


Herri Musikaren Txokoak bere ateak zabaldu zituenetik ahal izan duen neurrian museoa bisitatzen zutenen esku jarri du erakusketan ikus daitezkeen soinu-tresnak entzuteko aukera.

Lehen urteetan CD baten bidez entzun zitezkeen soinu-tresnetako batzuk. Teknologia hura mugatu xamarra zen eta 100 grabazio baino gutxiago jartzera behartzen gintuen.

Orain dela hamar urte eskas audiogida berriak jarri genituen 100 grabazio haien muga alde batera utziaz eta haiei esker gaur egun 200 grabazio baino gehiago entzun daitezke. Pixkanaka erakusketan dauden soinu-tresna guztiek izango dute lotuta berekin edo bera bezalako soinu-tresna batekin jotako audio eredu bat.


Bi urtetik hona azalpenak entzuteko aukera ere gehitu zen audiogidan, hau da, bitrina bakoitzean dagoen azalpena hizkuntza ezberdinetan entzuteko aukera. Hasieratik euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez entzuteko aukera jarri zen.

Iaz Galiziatik bisitan etorritako *Museo do Pobo Galego*-ko lagunek berehala nabaritu zuten beraien hizkuntzaren falta. Berehala eskatu zizkiguten testuak eta beraiek galizierara itzuli dituzte. Ondoren, *Universidade de Santiago de Compostela*-ko Komunikazioen Zientzien Fakultatean egin dituzte grabazioak. Orain audiogidako azalpenak galizieraz ere entzun daitezke.



HM UDAZKENEKO KONTZERTUA

Joan Francés Tisnèr okzitaniarraren taldea eta Alan Griffin albokaria Auzokalten 18:30etan ariko dira. Ondoren afaria izango da.



Web orri berriaren itxura telefono mugikorrean. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 611
Antolatutako taldeak: 13

Bisitari kopurua uztaile arte: 56284

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 12698

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus



OIARTZUNGO
UDALA